

**97 NEURRI LIZARRA BERRIRANTZ
URRATSAK EMATEKO 2019-2023**

ehbildu



Lizarra





PARTAIETZAREKIN, GARDENTASUNEZ ETA ERAGINKORTASUNEZ GOBERNATU DEN HIRIA

Partaidetza, gardentasuna, baliabide publikoen kudeaketa arduratsua eta eraginkorra, elkarrekin gure hiria hobetzen jarraitzeko, zintzoki eta gardentasunez.

KUDEAKETA PUBLIKOA ETA ERAGINKORRA

01. Jarraitu **diru publikoa gardentasunez kudeatzen**, bukatu berri den legegintzaldian bezala (2015-2019).

02. Zaindu bat etor daitezela **obra publikoen bukaera-kostua** eta haien hasierako aurrekontuak.

03. Sendotu Udalak hiritarrei eskaintzen dizkien **zerbitzuen kudeaketa publikoa**; zentzu honetan, jarraipena eman hiru arlotan egindako lanari:

- **kale garbiketa** (Jurramendiko Mankomunitatearen bitartez);
- **aparkalekuen** kudeaketa (lurrazpiko aparkalekuaren kudeaketa bizkortu eta kudeaketa eraldatu, mugikortasunaren faktore gakoa);
- udal **kiroldegia** eta kirol eskaintza.

04. Garatu **tresna informatikoak** udal kudeaketa hobetzeko eta harremana errazteko hiritarrekin.

HIRITARREN PARTE-HARTZEA

05. Sendotu eta garatu **hiritarrek parte har dezaten** 2015-2019 legegintzaldian abiatutako dinamika: aurrekontu partizipatiboak, auzo batzarrak, iradokizunen postontziak, e.a.

06. **Aurrekontu-saila handitu** partizipazio dinamika horietatik sortzen diren ekimenentzat.

07. **Hiritarrek Parte-Hartzeko Ordenantza osoki garatu**, joan den legegintzaldian onarturikoa (2015-2019).

HIRI BIZIGARRIAGOA, JASANGARRIAGOA ETA SOLIDARIOAGOA

Hirigintza, ulertuta hiria pertsonen neurrira garatzeko tresna gisa, pertsona guztientzat. Garapena, ulertuta pertsoneri eskaintzen dien lekuaren arabera, eta ez porlana eta hormigoi kiloan arabera; integrazio soziala duena, irisgarria eta jasangarria dena; elkartasuna duena.

HIRIGINTZA ETA MUGIKORTASUNA

08. **Ipar Kalea pasealekua** garatu ("**Lizarrako boulevarda**"), gure hiriko lehentasunezko beharra baita:

- Aldatu Hirigintza Plana, bideragarritasun ekonomikoa izan dezan Ipar Kalea pasealekua garatu ahal izateko.
- Ekin negoziazioari Nafarroako Gobernuarekin, beharrezko finantzaketa

lortzeko, ulertzen baitugu bide hau zirkulazio sistema orokorraren parte dela, garrantzi estrategiko handikoa baita Merindadeko beste eremu batzuen mugikortasunarentzat.

09. **Oinezkoentzat egin San Andres kalea** eta honen eragin eremua, Merkataritza Indartzeko Planaren gomendioei jarraituz.



10. Jarraitu erabilera praktikoak ematen **aukera-esparruei**: hutsik dauden orube eta eraikinak; hiri-baratzeak; e.a.

11. Indartu gure **kaleak eta plazak aniztasun eta elkarbizitza gune** gisa: sustatu hiri barneratzailea, argiztapenari buruzko hausnarketak, segurtasuna, ibiltasuna, gune berdeak, zarata, jendetasuna, erabilera mistoak, genero hirigintza, kanpoaldean analisia.

12. Zabaldu **sare irisgarri eta seguruak** ibilgailu motorizaturik gabe mugitzeko: eskola ibilbideak, bidegorria, Ega gaineko pasarela San Pedrotik Los Llanosera (Txantona), e.a.

13. **Aldi zaharra** eta beste leku estrategiko batzuk suspertu eta **leheneratu**: dirulaguntzak 2. mailako "ondare historiko-artistiko" izendatu diren eraikinen etxe-aurreak zaharberritzeko.

JASANGARRITASUNA

14. **Biomasa sarea instalatu Rua kalean**, energia emateko kaleko eraikin publiko guztiei: Erromesen Aterpetxea; Karlismoaren Museoa; Kultura Etxea; Udaletxe Zaharra; Gustavo de Maeztu Museoa.

15. Jarraitu ordezkatzeko argiztapen sistema zaharra **LED teknologiako argiekin**, energia kontsumoa bera eta kontsumo horretatik eratorritako gastuak gutxitzeko.

16. Aztertu eta **hobetu ureztatze sistema publikoak** eta sustatu **lorazaintza jasangarriago bat**.

17. Jarraitu zaintza ekintzekin: **hiri barruko eremu berdeak, Ega ibaia** eta hiria inguratzen duten natur eremuak.

18. Sortu **Jasangarritasunaren Udal Saila**, bultzatu ditzan jasangarritasuna ardatz duten

zeharkako proiektuak, bai Udalarenak direnak, eta baita hiriari eragiten dioten beste maila batekoak direnak ere.

- sustatu gizarte- eta ekonomia-eragileen inplikazioa **Tokiko Agenda 21**en ekintzak garatzeko.
- gehitu ingurumen irizpideak Udalak egiten dituen kontratazioetan, erosketetan eta ekitaldietan.
- parte hartuko da Estatu eta Europa mailako sareetan.

19. Estella-Lizarrako ordezkariak, Jurramendi Mankomunitatean, **ur eta hondakinen kudeaketaren** bisio batekin lan egingo dute, Merindadeko baliabide garrantzitsua dira eta ekonomia zirkularraren ikuspegitik.

ETXEBIZITZA ETA EKINTZA SOZIALA

20. Lanean jarraitu Estella-Lizarra izan dadin **etxe-gabetzerik gabeko hiria**, azken lau urteotan bezala.

21. Etxebizitza bermatu **etxegabeko larrialdi-egoeran daudenei**:

- Etxegabeko larrialdi-egoerarako etxebizitzak eraiki.
- Aurrekontu-saila bermatu etxegabeko larrialdi-egoerako etxebizitzak mantentzeko eta kudeatzeko.

22. Bermatu **etxebizitza sozialaren** eskaintza:

- eraiki etxebizitza sozialak Ibarra eremuan (20 etxebizitza);

- eraiki etxebizitza sozialak Ospitale Zaharrean (14 etxebizitza).

23. Garatu Ordenantza bat **okupatu gabeko etxeak zergapetzeko**, batik bat banketxe eta higiezin enpresenak.

24. Sortu **aholkularitza juridikoa** emateko **udal zerbitzua**, etxebizitza izateko zailtasunak dituzten pertsonentzat.

25. **Erdigune historikoa** indartu, ekinbidearen ardatza izanik **etxebizitza eskuragarri** egiteko politikak.

26. Bultzatu ekimen publikotik **eraikuntza eta birgaitzea**.



27. Egin **diagnostiko** bat, ikerketa-entitateekin eta inplikaturiko zenbait

eragilerekin: Gizarte Gaiak, Gazteria, Osasuna.

LIZARRA ANITZA, KONPROMETITUA ETA ELKARBIZITZA OINARRI DUENA

Sinesten dugu Lizarraren kolektibitate-kontzientzian; ez duena inor baztertzan bere sinesmen, adin, genero edota hautu sexualarengatik; bere pluraltasunaz eta aniztasunaz harro den hiri batean.

ELKARBIZITZA

28. **Kontzientziario kanpainak** egin herritarren arteko elkarbizitza eta elkarrekiko begirunea hobetzeari begira:

- elkarbizitza hiri garbiago baten alde;
- elkarbizitza jendarte anitzago baten alde;
- elkarbizitza etxe-animalia eta hiritarren artean;
- elkarbizitza aisialdia eta atsedeneren artean;
- kontzientziarioa joko eta apustu aretoen mehatxuaren aurrean;
- kontzientziarioa droga kontsumoaren aurrean.

29. Zabaldu eta sendotu **Brinka! egitasmoa**:

- bilatu kirol taldeen inplikazio handiagoa;
- zabaldu eskola ibilbideak Mater Dei ikastetxeraino;

- zabaldu adin tartea 10 urte arte.

30. **Elkarbizitza Ordenantza** egin.

31. **Udaltzaingoaren Barne-Arautegia** egin:

- bermatu pertsona guztientzako berdintasunezko tratua;
- lehenetsi eremu pedagogikoa zigortzailea baino;
- lehenetsi udal ordenantzak aplikatzea Lege hertsatzaileak beharrean, 4/2015a kasu, betiere arau-haustea aipatu ordenantzetan jasota baldin badago.
- Udaltzaingoak grabatzeko erabiltzen dituen kamerak kendu, grabatzen diren pertsonen eskubideak eta askatasunak bermatzeko.

GAZTERIA

32. Baliabide fisikoak eskaini eta burokrazian lagundu, gazteek **ekimen eta proiektu soziokulturalak** egin ahal izateko.

33. Lagundu gazteen **autogestio ekimenak**, pertsonen garapenerako errealitate positiboak direlako, hirian partaidetza baloreak bultzatzeko, eta hiriko jardun kulturala eta soziala aberasten dutelako.

34. Zaintza zorrotza **gazteriak jasan ez ditzan kriminalizazioa** eta jazarpena.

35. Kanpainak **auto-enplegua** eta lan formakuntza sustatzeko.

36. **Gazteriaren teknikari** lanpostua sortu.

37. Gazteentzako **etxebizitzak**.

BERDINTASUNA

38. Bultzatu **mugimendu feministak** eta emakumeen **elkarrekin parte har dezaten** Berdintasun Batzordean, eta berma dadila haien ekarpena Berdintasunerako politika

publikoen diseinuan, egitean eta jarraipenean.

40. Sortu, bultzatu eta sendotu emakumeen **ahalduntzerako** proiektuak, arreta berezia emanez bazterkeria egoera



bikoitzak edo hirukoitzak jasaten duten kolektiboek, edozein izanik ere haien jatorria, arraza, sexu-joera edo genero-espresioa, e.a.

39. **Aurrekontuek genero ikuspegia** izanen dute, osoa eta zeharkakoa, eta lehentasuna

emanen diote pertsonen berdintasun errealari eragiten dioenari.

41. Bizkortu eta areagotu Udaleko **langileria teknikoaren formakuntza** prozesua, bermatzeko generoaren zeharkakotasuna udal lanean.

ANIZTASUNA

42. **Harrera Hiria Batzordea** sortu, kultur aniztasuna kudeatzeko politikak koordina ditzan, harrera, elkarbizitza eta sentsibilizazio eremuetatik.

43. Bertan bizi diren eta jatorri ezberdina duten **komunitateen arteko topaguneak** eta dinamikak bultzatu elkarreragina izan dadin, elkarrekiko begirunea eta ezagutza oinarri izanik kultur aniztasunean elkarbizitzeko.

44. **Ijitu Herria** eta honen kultura **Lizarraren funtsezko zatia dira**, beraz, neurriak ezarriko dira berau ezagutarazteko eta parte har dezan kultur aniztasunarekin lotutako ekimen guztietan.

45. Berdintasuna eta bazterkeriarik gabeko hiri eredia sustatuko duten **gizarte politika barneratzaileak** bultzatu.

EKONOMIKOKI BIZIA DEN LIZARRA

Lizarrak jardun ekonomikoa behar du bizirauteko, eta proposamenak eta lan-lerroak ditugu bizitza ematen jarraitzeko; merkataritza sustatzeko, turismoa erakartzeko eta geure hirira enpresak etortzeko.

EKONOMIA INDARTU, LANERAKO ESKUBIDEA, EKINTZAILTZA

46. Jarraitu **Migel de Egia industriagunean** legegintzaldi honetan abiatutako lanarekin, neurriak ezartzen enpresei erakargarri egiteko eta Nafarroako Gobernuaren inplikazioa bilatzen.

47. **Ekintzaileei** laguntzeko **ekimen berritzaileak** garatu:

- diagnostikoa egin ezagutzeko lokal hutsak eta hauen egoera. Bertatik datu basea sortu eskualdeko ekintzaileen beharrekin alderatu ahal izateko;
- lokalen sarea sortu baliagarri izan dadin ekintzailtza ekonomiko, sozial eta

kolektiborako eta, honela, ekintzailtza horretatik inguruari itzuli.

48. Eskaini jardun ekonomikorako lekuak non sinergiak ager daitezkeen negozio aukera berriak sortuz; **udal "coworking" eremua** garatu, Udalak bultzatua eta lagundua.

49. Lotura indartu **TEDER, LASEME, Merkatarien Elkarte eta sindikatuekin**, lan- eta formakuntza-lerro estrategikoak diseinatuzeko.



TURISMOA

50. **Lizarran iragarri helmuga turistiko gisa, kulturala eta familiarra**, honelako ekintza zehatzekin:

- paseoak diseinatu eta eskaini, monumentuen interes turistikoa eta familia-turismoari egokituta;
- ibilbideak eta mugarrak sortu txikiekin bisitatzeko;
- prestatu txirrindulak alokatzeko zerbitzu publikoa Geltokiko lurrazpiko aparkalekuan, Lizarra eta eskualdea ezagutzeko;
- antzeko tamaina eta ezaugarriak dituzten hirien arteko topaldiak egin, esperientziak partekatzeko eta sinergiak sortzeko;
- lehenetsi kultura- eta familia-turismoari begirako ferietan egotea;
- ziurtatu aldizka agertzea familia- eta kultura-turismoaren argitalpenetan;
- sustapen kanpainak egin gure hirian antolatzen diren eta nazioarteko proiektzioa

duten kultur ekimenetan: Erdi Aroko Ikerlanen Nazioarteko Astea; Antzinako Musikaren Astea.

51. **App bat egin Lizarraldeko Donejakue Bidea familian** egiteko, entitate publiko eta pribatuak elkarlanean, bai sortze prozesuan eta baita mantenuan ere.

52. Bilatu **Europako finantzaketa**, Donejakue bidea gure hirian sartzean, izan dadila honen historiari lotutako negozio aukerak ekartzeko.

53. Handitu **ikusgarritasuna eta presentzia hiria sustatzeko balio duten eta parte garen elkarteetan**: Erdi Aroko Hirien Sarea; Donejakue Bideko Udalerrien Elkarte; Judutegien Sarea.

MERKATARITZA

54. **Monumental-merkatal ardatza** aktibatu; ekintzak:

- hiri jaialdi bat antolatu (merkataritzari lotua, erakusleihogintza, standak, arkitektura iragankorrak, honen ikusgarritasuna handitzen lagunduko dutenak);
- uda garaian asteroko artisautza postuak jarri Azukarero zubian;
- egutegia sortu eta adostu ostalariekin eta merkatariekin urteko egun guztietan askotariko eskaintza izateko.

55. Neurriak ezarri **lokal hutsei erabilera komertziala** emateko; ekintzak:

- Datu basetik, lokal erabilgarrien poltsa sortu eta hauek erabiltzeko irizpideak ezarri,

TEDER Ekintzaitetza programaren bitartez eskatzen duten ekintzaileentzat.

- Kenkariak udal zergetan erabilera jarraitua duten lokalengatik.
- Zergapetu jardun ekonomikoa sortzeko erabilerarik ez duten 2 lokal edo gehiago dituzten jabeak.

56. Erraztu jarduera berriak egitea merkataritza eta turismoa erakartzeko baliagarriak izanen direnak:

- *oroigarri* eguneratuak sortzea bultzatu: artista deialdia (eskualdeko analogikoak eta digitalak).
- Bultzatu *pop-up* dendak edota erakusleihoak irekitzea (artistentzako galeria komuna, negozio ibiltariak, e.a.).

KULTURA GEHIAGO DUEN LIZARRA

Kultura pertsonen garapenarentzako osagai funtsezkoa da eta, beraz, baita komunitateentzat ere. Udalak kulturari esleitzen dion dirua ez da gastua, etorkizuneko inbertsioa baizik, Lizarra kulturadunago eta sortzaileago bat lortze aldera eta, hortaz, aberatsagoa ezagutzan eta baloreetan.



KULTURA AZPIEGITURAK

57. Sendotu eta **bultzatu Los Llanos Kulturagunea** kultura programazioaren gune gisa.

- Aurrekontu-sail ekonomiko nahikoak Los Llanos Kulturagunea ongi mantentzeko.
- Ezarri seinaletika bateratua kultura-leku guztietan (Musika Eskola-Almudi, erabilera anitzeko aretoa, auditorioa, aretoak, zinemak, lorategiak, e.a.) eta argibide orokorreko seinaleak Los Llanos Kulturaguneko sarreretan.

- Bultzatu Los Llanos Kulturagunea kongresuak, profesionalen jardunaldiak, topaketa sozialak, e.a. egiteko.

58. Garatu **Est(r)ella / L(i)zarra Erakusketa Proiektua** Udaletxe Zaharreko lehen eta bigarren solairuetan, hiriaren erreferente kulturala izan dadin, hiria beraren ezagutza garatzeko, bai bertakoentzat eta baita bisitariarentzat ere (turistak, erromesak, e.a.)

KULTURA PROGRAMAZIOA, HERRI KULTURA ETA SORKUNTZA

59. Sendotu egungo kultura programazioa eta aberastu **izaera tematikoa duten programa berriekin** (Elkarguneak, jazz, udako zinema, e.a.).

60. Erraztasunak eman **bertako artisten** sorkuntzari, Udalak lekuak utzita haien

lanak programatzeko edo artelanak erakusteko.

61. Estella-Lizarraren **herri kultura bitu**, lehentasunezko identitate osagaia bezala.

ONDARE HISTORIKO-MONUMENTALA

62. Ireki **Lizarra Hiriko Artxibategi Historiko** bat, Turismo Bulegoak lehen hartzen zuen lokalean, Gustavo de Maeztu Museoa ondoan. Zertarako-eta gure dokumentu-ondarea hobeto mantentzeko eta erosoago eta seguruago kontsultatu ahal izateko hiritarrek, ikerlariek, e.a.

63. **Gazteluen eta judutegiaren eremua berreskuratu:**

- Irisgarritasuna hobetu.
- Sustatu indusketa kanpainak.
- Neurriak ezarri balorea handitzeko:

- seinaleak jarri;
- osagai arkitektoniko esanguratsuak partzialki berreraiki.

64. Identifikatu **Eliza katolikoak inskribaturiko ondasunak**, hipoteka-legeriaren pribilegioaren babesean, eta lan egin leheneratzeko haien lehengo erregistro-egoerara, Ondare publikoari bueltatzen interes historikoa, artistikoa edo kulturala dutenak.

HEZKUNTZA

65. Jarraitu hobetzen Udalaren ardurapean dauden hezkuntza azpiegiturak: **Remontibal I.P., Arieta Haur Eskola** eta Julian Romano **Musika Eskola**.

66. Handitu **Hizkuntza Eskolaren** hizkuntza-
eskaintza.

67. Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri, **arte grafikoaren modulua** irekitzeko **Formakuntzan**.

68. Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri **euskarazko hezkuntza lerroak** irekitzeko **Formakuntzan**.



LIZARRAN EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

"Euskara udalerriko berezko bi hizkuntzetako bat da ", dio Euskararen Ordenantzak, eta Udalak zaindu behar du adierazpen hau errealitate izan dadin, zeharkako lanaren bidez eta bere jardun osoari eragingo diona.

69. Bultzatu euskararen normalkuntzaren alde lan egiten duten **eragileen parte hartzea; Euskara-Kontseilua** zabaldu eta koordinatu Euskararen Udala Batzordearekin.

70. Sustatu **euskararen erabilerarako** programak eta jarduerak, eskolaz kanpoko eremuan eta adin-tarte ezberdinei zuzenduak.

71. **Euskara ikasteko** laguntza:

- euskara ikasteko **bekak**;
- sustatu, euskararen irakaskuntzan aritzen diren erakundeekin, **neurria egindako ikastaroak** hainbat sektorerentzat.

72. Bultzatu **komunikazio elebiduna** Udala eta hiritarren artean:

- jarraitu urratsak ematen **dokumentazioa ele-biz** dagoela bermatzeko;

- erraztu **Udal langileei** euskara ikastea;
- bermatu komunikazio elebiduna Udalak **diruz laguntzen dituen** jardueren aldetik;
- eskatu Nafarroako Gobernuari Autobideko **seinaleak ele-biz** egon daitezen.

73. Handitu Udalak **antolatzen dituen euskarazko jarduerak**:

- Gazteriaren Etxea;
- Kiroldegiko jarduerak;
- Turismok antolatzen dituen bisita gidatueta.

74. Urratsak eman euskal lerroak progresiboki sortzen joateko Julian Romano Udala **Musika Eskolan**.

75. Beharrezko gestioak egin hobetzeko **euskarazko komunikabideen seinaleak** hartzeko.

HIRI OSASUNTSUA

Udalek osasunean eskuduntza mugatuak izan arren, gertuen dagoen administrazioak lan egin behar du bere ahalmenen neurrian funtsezko ondasun hau zaintzeko, bizilagunen osasuna hiriaren osasuna delako.

ADINEKOENTZAT

76. **Zahartze aktiborako plana** egin.

77. Antolatu, aldizkakotasun finkoarekin, **"Paseo osasuntsuak"**, Estella-Lizarrako Osasun Sailarekin elkarlanean.

78. Aztertu **otordu osasungarriak** eskaintzeko bideragarritasuna, alargun edo banandu diren pertsona helduei, Ostalaritzaren Lantegi Eskolan. Bertara sartu ahalko litzateke kontrolatutako eta prestatutako pasealekutik.

79. Udalak **petanka txapelketa** antolatzea erretiroa hartu dutenentzat.

80. **Erretirodunen** klubari **laguntza** eskatu honen kideek **eskola ibilbideetan** ikasleei laguntzeko.

81. Arieta auzoan **lorategi** eta **baratze** txikiak diseinatu **Erretirodunen** klubeko eta San Jeronimo zahar etxeko kideek **zaindu ditzaten**.



TXIKIENENTZAT

82. Sendotu eta luzatu **Brinka!** programa **10 urte arte**, kirolaren balioak eta ohitura osasungarriak transmititzeko tresna.

83. Berreskuratu ekainean kirol taldeek antolatzen zuten **Kirolaren Eguna**, Brinka! ikasturtearen amaieran, eta erakusleiho gisa kirol modalitatea aukeratu ahal izateko.

84. Martxan jarri, eskolekin eta Guraso Elkartekin, **Eskola Ibilbideak**, eta eman behar duten laguntza, langileen eta azpiegituren aldetik.

85. Hobetu eta **handitu hirian barreiaturik dauden haur-parkeak**, mugimendurako osagarri berriak sartuz.

GAZTEENTZAT

86. **Gazte foroa** hauen eskaerak ezagutzeko, kirol azpiegituren aldetik eta kaleko aisialdi aktiboan.

87. **Erreferentziazko kirolarien hitzaldi** sorta antolatu, kirol ezberdinetan aritzen direnak, haien errealitateak ezagutzeko eta zabaltzeko gazteen ikuspegia kirol

jardunaren inguruan, eta motibagarriak izan daitezen sedentarismoa eta alkohol zein drogen kontsumoa saihesteko.

88. Aztertu udan zehar antolatzea **txabiskeen arteko diziplina anitzeko txapelketa**.

KIROL TALDEAK

89. Aldatu eta **sinplifikatu** kirol taldeentzako **dirulaguntza deialdia**.

- sortu hainbat kategoria deialdiaren barruan (oinarriko kirolarekin, gabe, banakako kirola, bikoteka, e.a.);
- errebisatu diruz lagungarriak diren kostuak eta berritu egungo errealitatera;
- baldintzatu dirulaguntzak jasotzea, Udalaren logoa kirolarien eta taldeen ekipazioan egotearekin;
- txikitu kirol taldeek dirulaguntzetan aurkeztu behar dituzten agirien kopurua

90. **Kirol taldeen inplikazioa** bilatu **Brinka!** programan

91. Egin eta garatu **kirol azpiegituren plana**, diru kopuru finkoa eman aurrekontuetan bertan lehenesten diren neurriak egiteko.

92. Taldeekin adostu **behar den materiala** gure hirian **kirol ekitaldiak antolatzeko**, eta berau lortu taldeei arintzeko eta errazteko ekitaldi horiek antolatzea.

DENONTZAKO KIROLA

93. Estella-Lizarrako **Kirol Plan Integrala** egin:

- Diagnostikoa egin gure hiriko kirol egoerari buruz, araututakoa zein ez, arreta berezia emanez emakumei.
- Diseinatu udal irudi bat Lizarrak kirol eta aktibotasun irudia proiektu dezan;
- Irudi hori serigrafiatu kirol materialean, ekipazioetan eta mailegatzeko euskarrietan.

94. Bilakatu gure hiria jarduera fisikoaren eta **kirolaren erreferente**, antolatuz eta

lagunduz ekitaldi herrikoiak, amateurak eta profesionalak, ahalik eta kirol mota gehienetan:

- erreserbatu aurrekontu-saila estrategikoak estimatzen diren ekitaldiak laguntzeko, edo antolakuntza gaitasun txikiagoa duten klubek edota pertsonen antolatutako ekitaldiak laguntzeko;
- bereziki, txirrindularitza garatu, Udalak alor horretan egiten duen ahaleginarekin bat: mugikortasun jasangarria, BTT Ibilbideak edo Vasco-Navarro trenbideko Bide Berdea;



- bidegorria luzatu egingarria den lekuetan.

95. **Ibilbideak** markatu eta seinالاتu hiri inguruan, izan **paseorako, BTT**ako, zein **lasterketetarako**:

- mapa bat editatu hauen kokapenarekin;
- ibilbideak geokokatu eta udal webean zintzilikatu.

96. **Azpiegitura berriak** sortu:

- **atletismo pista Ontzinedan**, lursailen egoera konpontzen bada;
- skate parkea handitu;
- kaleko soinketa parkea.

97. Zaindu gure kirol azpiegitura nagusia, **Kiroldegia**:

- Kirol Azpiegituren Planean instalazio honetarako zehazten diren neurriak bete, eta horretarako Inbertsioen Plana ezarri beharko da;
- erabiltzaileen Batzordea sortu lehen eskutik ezagutu dezagun kiroldegia gehien erabiltzen dutenen lehentasunak;
- aukeratu erabiltzaileen ordezkari bat Udal Kiroldegiaren Jarraipenerako Udal Batzordeko kide izateko;
- lehiaketara atera Kafetegi Zerbitzua, berritu dadin, kiroldegiaren irekiera ordutegiak bete ditzan eta instalazioaren osotasunari zerbitzu gehigarria eman diezaion.

